



EUSKAL HERRIA SOZIALISTA



76 zenbakia
euro 1
laguntzarekin: 2 euro

**Ezker
Iraultzailearen
aldizkaria**

EAJren eta Patronalaren erasoen aurka!

Borroka guztiak elkartu!

Greba orokorra!





Bolsonaro

ren

gobernalaren kontrako hezkuntzako mobilizazio masiboak Brasil

CORAL LATORRE
Ikasle Sindikatuko
idazkari nagusia

Maiatzaren 15ean, Brasilgo ikasle eta irakasleek mobilizazio erraldoia egin zuten hezkuntzari egindako erasoaren aurka. Bi milioi pertsona baino gehiagok herrialde osoan 200 hiritako kaleak bete zituzten, unibertsitateetan eta hezkuntzako erakunde federaletan egin nahi duten %30eko murrizketaren eta Hezkuntza Ministerioak onartu duen Humanitateen aurkako erasoaren aurrean.

Ikastetxeetako paroek eta protesta uholdeak Brasilgo panorama poli-

tikoa astindu dute; zenbait komunikabidek adierazi dute Bolsonaro gobernuaren eta herritarren arteko "ezte bidaiaren bukaera" dela.

Gazteria zutik

Eraso horiek gobernuak langile eta gazteen eskubideen aurka abiatu duen ofentsibaren parte dira, eta hezkuntzan eragin handia izan dute. Bereziko garrantzia dute Bolsonaro hitzek, unibertsitatea suntsitu beharreko "marxismo kulturalaren fokutzat" hartu baitu; Ricardo Velez Hezkuntzako ministro ohiak baieztatu zuenez "genero heziketa"

ezabatu behar da eta "heziketa militarra" ezarri.

Gazteen artean sumatzen den borrokarako giroa klase apaletako gazteek, "fabeletako seme-alaba" bezala ezagutzen diren horiek, bizi duten errealitate eta esperientzia dramatikoaren erantzun da, langabeziara, indarkeriara eta gosea pasatzera kondenaturik baitaude: %43,4koa da ume eta gazte pobreen portzentajea, bi ordutik behin 15-29 urte bitarteko pertsona beltz bat hiltzen dute eta 11 milioi gazte ez dute hezkuntzarako eta lanerako sarbiderik.

Gobernuak hezkuntza publikoarentzat onartu duen murrizke-

ta azken urteetan Brasilgo gogor borrokatu duten gazteen aurkako murrizketak da, eta halaxe azaldu zuen Abraham Weintraub hezkuntza ministroak; bere esanetan, fakultateetako "desordenaren" aurkako eskarmentua da aurrekontuen murrizketa.

Mezu garbia bidali nahi izan die die Temerren politika kapitalistei aurre egin eta Bolsonaro kanpainaren aurkako zutabe izan ziren gazteei. Halere, gazteek kaletik beste mezu indartsuago batekin erantzun dute: "Hemen gaude zentsurari ez esateko, ez murrizketei eta ez Gobernu autoritario honi. Guk ikasi nahi dugu. Ikasteko eskubidea dugu, gure unibertsitateak, eskolak eta institutuak Brasilgo herriaren ondare dira, eta edozein gobernuaren gainetik, hori defendatzeko borrokatuko dugu".

Mobilizazioan irakasleek, ikasleek, funtzionarioek, sindikalistek... parte hartu dute eta goitik behera astindu dute herrialdea. Eta komunikabideek ez dituzte kasualitatez isilarazi. Gobernuari aurka egiten dion mugimendu gero eta indartsuagoaren parte dira. Bolsonaro gobernuaren lau hilabete hauetan,

Brasilgo gobernu batek hain denbora gutxian inoiz lortu duen baloriorik txarrena eskuratu du, hila bete hauek ustelkeriaz, hazkunde ekonomiko ahulaz eta polarizazio sozial indartsuz beteta egon baitira.

Bolsonaren aurkako jarrera gora

Eskubide demokratikoen aurkako Gobernuaren gurutzada atzerakoia hezkuntzaren mugak gainditu ditu. Langileen, gazteen, herri indigenen eta pentsionistek aurkako erasoek Brasilgo gizartearen kontzientzia eragin dute, eta Bolsonaro aurkako desafio giroa arnasten da.

Urriaren 7ko hauteskunde ondoan, hainbat analista entzun genituen Brasilgo langile eta gazteek izandako "eskuinerako biraketa sakonaz" hizketan, baina beste batzuk ziren emaitza horien eragileak: polarizazio politiko eta soziala, Bolsonaro kanpaina demagogiko sakona, PTko agintari erreformistenganako amorrua murrizketak aplikatu dituztelako eta agintari batzuk ustelkeria kasuetan inplikatu zeudelako eta ezkerrek alternatiba seriorik ez izatea.

Geroztik, mahai gainean jarri da Bolsonaro eta Brasilgo kapitalismoak gehiengoaren arazoak konpontzeko duen ezintasuna. Azken urteetako esperientziak erakutsi du masak ikasgai sakonak ateratzen ari direla: antolatuz eta mobilizatuz geldiaraz daitezke erasoak eta lor dezakete zapalduen bizimodu duina. Horrela ulertu behar dira gazteen mobilizazioak, Bolsonaro aurkako borrokan inflexio puntu bat markatu eta etapa berri bat abitu baitute. Etapa berri horretan, Brasilgo langile klaseak modu erabakigarrian parte hartuko du; horren frogak da ekainaren 14ko greba orokorra.

Greba orokorra antolatu behar da programa iraultzaile eta sozialista oinarrituta

Ikasleek erakutsi duten ausardia abiaburu ezin hobe izan da langile klasearen motorrak berotzeko, ekainaren 14ko grebari begira. Greba horrek mahai gainean jarri behar ditu borrokan ari diren sektore guztien aldarrikapenak, eta gobernuak garaitu arteko mobilizazio plan zabalago baten lehen pausoa izan behar du.

Hori dela eta, beharrezkoa da ezker borrokalariak erakundeak eta sindikatuek fronte bateratua eratzea, indigenen, nekazarien, feministak iraultzaileen eta ikasleen erakundeekin batera eta PTko eta CUTeko militante borrokalariak dei egin behar liekete, beren zuzendaritza metodo burokratiko eta erreformistak alde batera uzteko eta borrokararen batzeko. Beharrezkoa da Temerren lan erreformaren aurkako greba orokorretik ikasgaiak ateratzea, orduko hartan PTko burokrasiak mobilizazioa zabaltzea ukatuz borroka geldiarazi baitzuen.

Ezkerreko ekintzaileen betebeharrak nagusia da ikastetxe eta lantokietan ekintza komiteak sortzea greba asanbleario, demokratiko eta borrokalari antolatuz. Beharrezkoa da ekonomiaren planifikazioa erdiguneko jarriko duen programa sozialista iraultzailea defendatzea.



Venezuela_{ko}

eskuhartze inperialistaren aurka



KONTRAPORTADAN HASTEN DA

garrantzitsua emango luke munduko petrolio erreserba handienak eskuartzeko eta kontinenteko agintea berresteko bidean. Gainera, Venezuelako muturreko eskuinak garaipena lortuko balu, hori Latinoamerika guztiko masak kolpatzeko erabiliko litzateke, geroz eta ezinegon sozial handiagoa eta mobilizazio indartsuagoak baitaude hainbat herrialdeetan gobernu atzerakoien murrizketak politiken aurka, Argentinan, Txilen, Perun edota Brasilen esaterako.

Hala ere, kontinente guztian dagoen egoera ezgonkorra, polarizazioa eta klase arteko borroka maila altua, Estatu Batuetan barne, ozto-

po objektiboa da kanpoko eskuhartze inperialista gauzatzeko. Venezuelako itsas armada sartzeak pila-uriko ezinegon leherrarazi lezake eta masa mobilizazioak eragin herrialde herrialde.

Apirilaren 30eko eta maiatzaren 2ko estatu kolpe saiakeren porrotaren ondoren, ezegonkortasuna eragiten jarraituko dute kolpistek. Hiperinflazioak, zigorrak, sabotajeak, argi mozketak, etab. konbinaturik eztanda sozial bat edo sakeo bolada eta kaleko enfrentamendu biolentoak eragitea espero dute, armadako ofizialtasunaren barnean egoera aldatzeko eta beren aldeko kolpe militar baten aukera irekitzeko.

Gobernuak eta PSUveko buruzagiek armada hausturik gabe Maduroekin dagoela diote. Kupu- la militarren babes osoa izango dutela espero dute, baina politika horrek iniziatiba atzerakoien eta inperialismoaren esku uztea dakar, eta agerian jartzen du gobernutik ez dagoela inolako estrategiarik, ez bada eskuineko oposizioarekin negoziaketa hipotetiko bat abiatzea. Ezer konponduko ez duen utopia latza.

Estatu aparatuen barnean zatiketa eta kontraesan garrantzitsuak daude. Inteligentzia militarreko buruzagia den Figuera altxamendu saiakeran inplikaturik egotea,

oso abisu serioa da. Gizarteak bizi duen polarizazio berbera dago ar- madan eta estatu aparatu barnean.

Botere guztia langileentzat eta herriarentzat atzerakoiei aurre egiteko!

Ofentsiba kolpista garaitzeko mo- du bakarra, masen indarra piztuko duen politika iraultzaile baten bidez da. Baina alternatiba sozialista bat defendatu beharrean, PSUveko bu- rokrazia eta Maduroren gobernu- akordioetara iristen saiatzen ari dira behin eta berriz burgesia bizkarroia- rekin, ustelkeria bultzatuz, hondoa jota dagoen kapitalismoa kudeatuz, langile mugimenduko eta ezkerre- ko sektore borrokalarienak eta kon- tzianteenak erreprimatuz, inperialis- ta txinatarren eta errusiarren altzora jauzi eginez, pribilegioak eta esta- tu boterearen kontrola bermatzeko.

Madurok eta egungo PSUveko buruzagiek Estatu kapitalismo ba- ten eredu hautatu dute, soldatetan eta eskubideetan murrizketak egi- nez, enpresa publikoetan eta pribatuetan milaka lanpostu suntsituz, enpresariei etengabeko kontzesioak eginez. Eta hori egin arren, ezin izan

ditu saihestu ekoizpen aparatuen hondoratzea, hiperinflazioa eta sa- botaje inperialista.

Ez da egokia Venezuelako masak defendatzea akritikoki Maduro ba- bestuz, Euskal Herriko ezkerreko se- ktore batzuk egiten ari diren bezala. Trump eta Venezuelako burgesia ga- raitzeko, borrokatzen duen ezkerre- ren lehen eginkizuna da Guaido eta oposizio inperialistaren helburuak eta izaera kriminala salatzea, baina Maduroren gobernuan edo kupula militarrean fidatu gabe. Beraien po- litikak izan dira herriaren deses- perazioa eskuinari manipulatzeko eta aurrera egitea baimendu dietenak.

Masen artean iraultzaren oroi- menak duen babesa, dagoen sena eta kontzientzia askoz ere handia- goa da, gobernuak antolatzen di- tuen manifestazioek erakusten du- tena baino. Herriaren aspirazioak eta berehalako beharrak jasotzen dituen zuzendaritza iraultzaile ba- tekin eta sozialismoaren aldeko bo- rroka programa batekin posible li- tzateke milioika zapaldu agertzen duten apatiari buelta ematea. Ho- riek ez dituzte Guaidó eta kolpisten planak babesten, baina ez dute Ma- durorengan alternatibarik ikusten.

Martxan jarri beharra dago in- dar hori guztia. Kolpearen aurkako ekintza komiteak bultzatu beharra ditugu, estatuko eta sindikatu- etako burokraziatik independenteak izan- go direnak, fabrika, ikastetxe eta au- zo guztietan. Komite horiek ekintza konkretuak antolatu behar dituzte (asanbladak, martxak, kontzentr- azioak...) eta herri, probintzia eta na- zio mailan koordinatu behar dira, langile, nekazari eta herri sektore guztien aldarrikapenak bateratze- ko, kolpea garaitzeko eta benetako ekonomia eta Estatu sozialista erai- kitzeko, burokraziarik eta ustelke- riarik gabe.

Ezinbestekoa da bankuak, lurra, enpresa handiak eta kapital inpe- rialista guztia desjabetzea, Vene- zuelako errekurso aberats guztiak zuzenean langileek kudea ditzaten. Ekonomia demokratikoki planifika- tuz herriaren mesedetan katastro- fe ekonomikoarekin amai genezake. Horrelako mugimendu batek Trump eta bere aliatuei erantzun ez ezik, milioika langileren babesa eskura- tuko luke Latinoamerika eta mun- du guztian, mehatxu kolpistari au- rre eginez eta gizartearen eraldake- ta sozialistaren bidea irekiz.



Bitan zapalduak, bitan iraultzaileak



LAURA LUENGO
*Ezker Iraultzailea eta Emakume
Aske eta Borrokalaria · Bilbo*

Alde batetik, modu irekian erasotzen gaituzte; adibiderik garbiena dira PP, Ciudadanos eta Voxen diskurtso matxista eta frankistak. Alabaina, beste era batera ere gure mugimendu iraultzaileari potentziala kentzen ahalegintzen dira. Zer da feminismo “liberal” eta “transbertsal” delako hori? Kapitalisten, bankarien eta enpresarien kapak dira, sistema errespetatzen duen feminismo bat bilatzen dutenak.

Hala ere, emakume langileok kaleak betetzen ditugunean ez dugu egiten sistemarekin begirunea izango duen mugimendu bat eratze-ko, ezta bertan posizio pribilegiatu

bat lortzeko ere —Ana Patricia Botinek bezala—; sistema kapitalistaren pean jasaten dugun zapalkuntzaren aurka borrokatzeko baizik. Hortaz, gure mugimenduaren ateak kapitalistei irekitzen dizkien feminismo burges eta burges txikiak ez ditu gure aldarriak ordezkatzeko. Ez al da sistema kapitalista hori prekaritatearekin, langabezia masiboarekin, miseria soldatekin eta etxe kalera-teeekin bete-betean jotzen gaituen bera? Ez al da sistema hori gure gorputzak merkantzia bilakatzeko dituen? La Manadaren sententziarekin kolpatzen gaituena, bere justizia patriarkalaz? Ez da kasualitatea lan gatazkak ikustea sektore feminizatuetan, han baita prekaritateak gorroren jotzen duen eremua: erresistentzietako langileak, “Kellyak”...

Guri ez digu ezertarako balio luxuzko eta itxurakeriazko feminismo batek. Martxoak 8ko greba historikoak seinatzen du gure bidea: esplotatzen eta zapaltzen gaituen sistema horrekin bukatzeko programa antikapitalista baten inguruan antolatuta behar gara.

**Emakume izateagatik zapalduak,
eta baita langile izateagatik ere**

Gure diskriminazioaren jatorria ez datza ezaugarri biologiko jakin batzuetan, gizartearen antolakuntzaren garapenaren egoera zehatz batean baizik. Lehenengo gizataldeek ez zuten ez jabetza pribaturik, ez klase bereizketarik ez emakumearen zapalkuntzarik ezagutu. Patriarkatua, hain zuzen ere jabetza pribatu-

tuarekin eta klase gizartearekin agertzen da, hau da, esplotatuak eta esplotatzaileak dituen gizarte batekin. Sistema horrentzat beharrezkoa da haurren, helduen eta gaixoen zaintzaren zama guk hartzea; beharrezkoa du gu guztiok etxeko lau parenten artean preso edukitzea, etxeko lanetara emanak, baita zapalduen batasuna eragozteko, emakumeak salerosi daitezkeen merkantziara murriztuz, EAJk eta Ciudadanosen prostituzioaren legeztatzea sustatzen dutenean, kasu.


Zutitu eta gure askapenaren bidea hasten dugunean, are langile klasearen metodoak erabiltzen ditugunean, besteak beste greba orokorra, masen mobilizazioa eta ekintza zuzena, Martxoaren 8an egin genuen bezala, sistema honen defendatzaileei beldurra sartzen zaie. Rosa Luxemburgok zera azaltzen zuen: “Emakumeen eskubide politikoen aldeko mobilizazio masiboen egungo egoera proletariotzaren askapen mugimenduaren espresio eta zati bat da”. Egonkortasunik ez dugunontzat, prekaritatea, langabezia eta pobrezia gure auzoetan bizi dugunontzat, gizartearen eraldaketa sozialistaren alde borrokatzea beste aukerarik ez dugu.

**Gure kateak hausteko:
gizartearen eraldaketa
sozialistaren alde borrokatu**

Burgesiaren Estatu honek krisi garaia erabiltzen ditu osasungintzan, hezkuntzan edo dependentziarako



laguntzetan murrizketak egiteko, hala, zerbitzu publikoak pribatizatuz haien poltsikoak betetzen jarraitzeko edo bankuak milioika euroekin erreskatatzeko, baina entzungor egiten die bestelako aldarri: haurtzaindegiak, jangelak, garbitokiak edo erresidentzia publikoak bermatzea. Zalantzarik ez izan, egunean zehar hainbeste ordu lapurtzen dizkigun eguneroko lan alienantez —erosketak egitea edo sukaldatzea bezala— eta etxeko-lanen kondenez askatzeko gai diren baliabide materialak existitzen dira. Alabaina, baliabide horiek kapitalisten eskuetan daude, zeinek mozkinen maximizazioa besterik bilatzen ez duten, planetaren suntsiketaren bizkar bada ere. Hortaz, ekonomia-aren sektore oinarritzaren nazionalizatu behar dira eta ekonomia planifikatu gehiengoaren beharrak asetzeko, kapitalista batzuen poltsikoak bete beharrean.



Federico Engels Fundazioak argitaratzen duen **MARXISMO HOY** aldizkariaren azkeneko alean —*Marxismo y Feminismo*— emakumeen borroka garaikidea aztertzen dugu. Emakumearen askapen mugimendua klase borroka zeharkatuta egon dela azaltzen duten hainbat adibidetan sakontzen dugu, eta beren burua ezkerreko feminismoan kokatzen duten zenbait autoreren argumentuak errefusatzen dira, Silvia Federicci eta Kate Millet besteak beste, zeinek, gezur eta faltsukeriaz beteta, emakumearen zapalkuntza ulertzeko marxismoa baliogabea dela defendatu duten. Ez galdu!

M26ko hauteskundeak Nafarroan

Huts egin duen “Aldaketaren gobernuaren” ikasgaiak

Eraiki dezagun Ezker Iraultzailea!

Nafarroako maiatzaren 26ko hauteskundeek ikusmira berezia izan dute ezkerren artean UPNren garai ilunen itzuleraren arriskua zegoelako. Navarra+ bloke atzerakoiaren garaipena asko azpimarratu bada ere, egia esan, apenas

irabazi ditu 11.349 bozka gehiago 2015eko foru hauteskundeetatik. Apirilaren 28ko bozka joerak mantendu egin dira hein batean, batez ere Podemosen galera handian eta horrek PSNren gorakadan izan duen eraginean.

EZKER IRAULTZAILEA
Nafarroa

Inkestek eta alderdi politikoen aurreikuspenek iragartzen zuten UPN kanporatu zuen laukotea errepikatzea zaila izango zela. Horrela izan da. Geroa Baik (EAJk Nafarroan duen marka) 2015eko emaitzak zertxobait hobetu ditu foru hauteskundeetan, 6.826 bozka gehiago eskuratzuz (60.323 guztira), baina 9.075 bozka galdu ditu udaletan, 20.560 ateraz. Geroa Baik hauteskunde orokorretan eta udaletan ia 30 mi-

la bozka gutxiago eskuratu ditu batzaz beste. Argi dago ezkerrek Nafarroako Gobernuko lehendakari-tza Uxue Barkosi entregatu izana itxura aurrerakoiagoa emateko eta bloke atzerakoiak geratzeko errefereente gisa agertzeko erabili duela Geroa Baik. Hala ere, udaletan hobe ikus daiteke beren eskuineko politikak eta posizionamenduek ez dutela hainbesteko babes oinarririk.

EHBilduk bere aldetik emaitzak hobetu ditu, batez ere udaletan. Inoiz baino zinegotzi gehiago atera ditu eta bozken kopuruan bigarren

postua berretsi du, 13.134 bozka irabaziz (67.810 guztira).

Zalantzarik gabe, dezeptzio handia Podemosen gainera erori da, 30.083 bozka eta 5 eserleku galdu baititu Nafarroako parlamentuan. Izquierda-Ezkerrak ere atzera egin du foru nahiz udal hauteskundeetan, nahiz eta azkenean ozta-ozta, aurreko legegintzaldian zituen bi aulkietatik bat mantendu ahal izan duen.

PSN izan da bozketan gehien hazi dena. 71.838 bozka jaso ditu foraletan (2015ean baino 26.674 gehiago) eta bigarren postua erdietsi du 11 eserlekurekin. Udaletan, berriz, 58.718 bozka lortu ditu. Estatu mailan bezala, PSOEek bere hautesleen zati bat berreskuratu ahal izan du Podemosen erorketatik. Dagoeneko Chivitek hasi ditu Nafarroako lehendakari izateko negoziaketak, Geroa Bai, Podemos eta I-Erekin, eta oso argi utzi du ez duela inolaz ere negoziatuko EH-Bildurekin, nahiz eta bere abstentzioa beharko lukeen lehendakari izateko. Ez da, ordea, hain hitz gogorrik egon Navarra+ekoen aurka, martxan jarri duten PSN-Geroa Bairen balizko koalizioaren aurkako kanpaina historikoaren aurrean. Ferrazen ere Geroa Baiekin koalizioa egitearen aurka agertu dira. Ezin da, beraz, baztertu



2007an PSOEek gobernuak UPNri entregatu zionekoa errepikatzea.

Eskuinarekin eginiko itunen prezioa

Aurreko gobernuko alderdiek gehiengo osatu ezin izana Podemosen porrota azpimarratzean justifikatu izan da. Baina galera gogor horren kausak, baita etengabeko barne krisienak ere, sakonagoak dira eta klase arteko borrokaren presioetan oinarritzen dira. Alderdi moreko buruzagien gainbehera sozialdemokrata eta burokratiko edota Catalunya herriaren altxamenduaren eta 78ko erregimenaren errepresioaren artean hartu duten jarrera ekidistantza Nafarroako talde barnean ere egon dira. Bestalde, ororen gaintik Geroa Bairen eskuineko gobernuaren egonkortasuna bermatzeko helburua lehenesteak, politika kapitalisten aurrean klaseko programa bat eusteari eta alternatiba oro defendatzeari uko egitea izan da.

Laukotearen akordioak hainbat puntu zituen. UPN eta PPren murrizketekin hezkuntzan, osasungintzan etxebizitza sozialetan, etab. galdu zena berreskuratzea planteatzen zen, baina ez dira aurrerapen esanguratsuak lortu puntu horietako batean ere. Geroa Baik ezkerrek eman zion zuzendaritza aldaketa gelditze-ko erabili du, baina baita laukotea bera apurtzeko ere. Aurreko udan, hauteskundeak galtzeko arriskuaz jabetuz aliatu berri eta erosoagoi keinua egitea erabaki zuen. Horrela, EH Bildurekin distantzia markatu zuen —nahiz eta hauek EAJ nafarraren aurkako kritika txiki-ena saihesten aritu— eta PSNri bota zion amua. Gogor jokatzen zekiela erakutsi zion Huertas de Peralta langileak erreprimitzuz eta Iruñeko Maravillas Gaztetxea modu basatian desalojatuz. Azken batean, EAJk jada babestu zuen zentsura mozioa eta EAEko instituzioetan elkarrekin zeuden gobernuaren eskuineko politikak eginez oso eroso.

Huertas de Peralta, emakumeak eta Altsasuk markatzen dute bidea Gure indarra kalean dago!

Esperientziak erakutsi du “aldaketaren” gobernuak ilusio hutsa besterik ez dela, ez bada politika kapitalistekin hausten. Gure bizi baldintzen benetako aldaketak ez dira inoiz etorriko eskuinarekin itunak egitetik, bulegoetako akordioetatik edo kalkulu aritmetikoetatik. Ikasgaiak atera behar dira esperientzia honetatik eta alternatiba iraultzaile bat jaso. Lorpenetan aurrera egiteko modu bakarra kalean borrokatzea da, Huertas de Peralta langileek, La Manadako epaiaren aurkako mobilizazio historikoek eta Altsasuk gazteen aldeko manifestazio erraldoiek erakutsi duten bezala. Hori da gazteen eta langileen eginkizun garrantzitsuena datorren garaian. Ezin dugu 4 urte hauteskunde berrien zain egon, ezta eskuinarekin eginiko akordioetan fidatu ere. Kalea hartu behar dugu berriro!



M26ko hauteskundeak EAEn

Kalean garaitu behar ditugu EAJren politika kapitalistak

Ezker Iraultzaile bat behar dugu



Udal eta foru hauteskundeak emaitzek berriro agerian jarri dute bloke atzerakoia eta, bereziki, PPK EAEn duen hondoratze izugarria. Diskurtso frankistaren eta espainolistaren eta errepresio, gorroto eta mendeku gosearen aurkako erantzuna izan da. Hala ere, EAJk eskuratu du garaipena, eskuinaren bozka erabilgarria bilduta, eta hiru diputazioetan eta hiriburuetan agindu ahalko du

bere bazkide gogokoena den PSEekin. Hauteskunde hauek are gehiago polarizatu dute bozka EAJren (%36,24 EAEko udaletan) eta EHBilduren (%24,79) artean; udaletan historiako emaitza hoberenak eskuratu ditu EHBilduk. Elkarrekin Podemosek desengainuaren prezioa ordaindu du, eta hori neurri batean PSEk jaso du, hirugarren postura igoz.

EZKER IRAULTZAILEA

Analista asko atera dira EAJren emaitzak ospatzera, langile klasea eta gazteria desmoralizatzeko asmoz. Baina beren kalkulu matematikoez oso kontzienteki ezkutatzeko dute egoera osotasunean ulertzeko funtsezkoa den puntua: Euskal Herrian mobilizazio maila altuenetakoa bizi dugu eta gainera zuzenean aurre egiten dio jeltzaleen politikarekin. Pentsionistak, mugimendu feminista, gazteria eta, batez ere, sektore publikoko eta sektore pribatizatuetako lan gatazkek benetan konplikatuko diote legegintzaldia EAJri.

EAJk eskuineko bozka batu du

Emaitzak berriro ere katastrofikoak dira eskuin espainolistaren bloke atzerakoiarentzat. Ciudadanosek eta Voxek ez dute lortu ordezkari bakar bat bera bere EAEko erakundeetan, ez diputazioetan ezta udaletan ere. Bestalde, A28an PPK jaso zuen kolpearen ondorioz, guztiz hondoratu da hauteskunde hauek. 2015eko udal hauteskundeez eskuratu zituen 102.430 (9,60%) bozketatik, 66.192ra (%5,88) jaitsi da; EAE osoan 55 zinegotzi lortu ditu, 4 bakarrik Gipuzkoan. Kolperik gogorrena Araban jaso du, Alfonso Alonsoren esperantza bakarra zena. Lau eserleku galdu ditu diputazioan eta 5 Gasteizko udalean.

PPren beherakada erabat loturik dago EAJren igoerarekin, ezkerrean aurkako bozka erabilgarria bildu

baitu. Cs, PP eta Voxeko buruzagiek “pribilegio autonomikoen” aurka hauspotu zuten diskurtsoak beren hautesle tradizionalaren zati handia uxatu dute. EAJk urteak darमतza zentratzen bere diskurtsoa autogobernua, Gernikako estatutua eta kontzertu ekonomikoa hobetzean: etxeko marka du eta euskal burgesia eta burgesia txikia oso kontziente dira kontzertu ekonomikoa negozioak bermatzeko eta irabaziak handitzeko tresna dela. Langile klasearentzat, ordea, horrek ez du bizi baldintzen hobekuntzarik ekartzen. Euskal eskuinak gobernatzen dituen instituzioetatik diru publikoa pribatizatzen eta lan baldintzak prekarizatzen jarraitzen da, patronalaren irabazi maximorako.

PSEk neurri batean aurreko udal eta foru hauteskundeetako emaitza txarrak hobetu ahal izan ditu (190.921 bozka lortu ditu diputazioetan, 2015ean baino 43.489 gehiago) Elkarrekin Podemosen beherakadari esker. Alderdi moreak esperantzak frustratu izanaren prezioa ordaindu du, eurengan ezkerreko alternatiba bat eta auzi nazionalean posizio aurrerakoa ordezkari zezaketela ikusi zuten askoren artean: 37.302 bozka eta 6 eserleku galdu ditu foru hauteskundeetan.

EAJri oposizio irmoa aurrez aurre! Betiko eskuina da!

EAJ behin eta berriz saiatzen da eskuin espainolistaren diskurtsoetik aldentzen eta bere burua aukera aurre-

rakoiago gisa aurkeztzen. Bere ardurak bakarrik Euskadiko ongizatea, egonkortasuna eta bake soziala bermatzea dela irudikatzen ahalegintzen da. Dena dela, praktikan, oso argi dago jeltzaleek enpresari handientzat eta patronalarentzat gobernatzen dutela eta horretarako instituzioetan dituzten aliatu nagusiak PSE eta PP direla. 100 milioi euro gaintuzten dituzten ustelkeria kasu mordoak oso argi erakusten dute ez direla bere kudeaketan kasu solteak. Industriako lanpostuen eta lan eskubideen etengabeko suntsiketa, prekarietatearen, behin-behinekotasunaren eta lanpostu zaborren izurriteak larru gorritan uzten dute hainbeste aipatzen duten “euskal oasiaren” gezur ikaragarria dela.

Hala ere, EAJk duen abantaila nagusia ezkerretik falta den aurrez aurreko oposizio baten faltan dago. Aurrez aurreko oposizioa itun aukerei ate guztiak ixтетик hasi beharko luke. EAJren eskuineko politiken salaketa argi eta irmo bat egitean oinarritu beharko luke, eskuinak duen benetako esanahia argitzean; garbi azaldu behar da EAJ ez dela inolako aliatua Euskal Herriko eskubide demokratikoetan aurrera egiteko, are gutxiago, langile klasearentzat eta, noski, ez dela inolako alternatiba eskuin espainolistaren aurrean.

Horren ordez, EH Bilduko eta Elkarrekin Podemoseko zuzendari-
tzek diskurtsoa EAJ beraiekin batera

M26ko hauteskundeak EAEn

politika aurrerakoiak abstraktuan egitera gonbidatzera bideratzen du. EH Bildurekin eginiko estatus berriaren ituna, Eusko Legebiltzarreko aurrekontuak negoziatzeko mantentzen jarraitzen duen prestutasunak, etab. EAJri maniobra tarte osoa eskaintzen diote bere buruari itxura aurrerakoi hori emateko. Udal politiketan gauza bera gertatzen da. PP botatzeko helburuz Gas-teizko alkatetza eman ostean, EAJk bizkarra eman zion segituan EHBilduri, PSE eta PPrekin gobernatzeko. Hauteskunde kanpainan, Larrionek berriro berdina egingo lukeela planteatzen zuen.

Joseba Egibarrek Euskadi Irratiant honakoa zioen: "Ikusten da EH-Bilduk politika egiteko modua garai berrietara egokitu duela, autogobernuaren defentsarekin eta estatus politiko berriarekin. Baina arlo sozialean izugarritzko bertigoa ematen dio EAJrekin elkarlana egiteari (...) egungo sistemak ez du alternatibarik, eta ez da guk esaten dugulako, beraiek ere ez dute inolako alternatibarik proposatzen".

EAJren helburu estrategiko nagusia ezkerria otzantzea da kalea bertan behera utz dezan, eta horretarako azpimarratzen du errealdismoa, praktizismoa eta jokoaren arauak errespetatu behar direla, eskubide nazionaletan zein politika sozialetan. EAJk EH Bildu zoriontzea, kalea mobilizatu gabe "politika egiten duen" bakoitzean, ezin hobeto erakusten du egin beharreko bidea guztiz kontrakoa dela.

Borrokak elkartu EAJren politika kapitalistak garaitzeko

Alternatiba bakarra hauteskundetara bideratzeako estrategia, sistema kapitalistaren logika eta gaitz txikiak onartuz, irtenbiderik gabeko kale itxia da. EAJk, gobernuan den eskuin orok bezala, benetako izua dio langile klaseak eta gazte-riak duen indarrari. Alde guztietatik saiatzen da langile eta gazte mugimendua desmoralizatzen, sakabarnatzen eta ahula dela sentiarazten, eta horretarako erabiltzen ditu bere komunikabideak eta Ertzaintzaren errepresioa, eta ezkerreko eta sindikatueto buruzagi erreformistetan ere oinarritu nahi du. Hori dela eta, beharrezkoa da ezker borrokalaria bat eraikitzea, alternatiba iraultzaile bat tinko defendatuko duena, baita instituzioetan ere, baina batez ere kalean, langile klasearen eta gaztearen borroka elkartuz autodeterminazio eskubidearen alde, politika kapitalista guztiekin amaitzeko.

Marxismoaren klasikoak euskaraz

IKER OTERMIN

Rosa Luxemburgen liburu honetan iraultzaile alemaniarrek sektore erreformisten aurka erabili zituen argudioak aurkituko ditugu. XIX. mende bukaeran Eduard Bernsteinen eskutik hasi ziren teoria marxistaren eta klase arteko borrokaren kontrako ideiei aurre egiten die idazleak.

Rosa Luxemburgen helburua marxismoa moldatu eta ukatu nahi zutenei puntuz puntu erantzutea da. Bernsteinen arabera, kapitalismoak azken aldian izan zuen garapenak krisiekin behin betiko amaitzea ahalbidetzen zuen eta, horrenbestez, masen bizi kalitatea etenik gabe hobetuz joango zen. Horrela arrazoitu zuten erreformismoaren lehen teorialariek, zergatik zeuden langile klaseak boterea hartzeko egin-kizunaren aurka. Horien arabera, sozialdemokraziaren helburua ez zen iraultzaren bidez sozialismoa lortzea, nahikoa zen jardun parlamentarioa. Jardun horrek pixkanaka langile klasearen konkistak bermatuko zituen eta bide batez Estatuaren demokratizazioa.

Rosa Luxemburg ez zegoen langile baldintza konkretuak hobetzearen aurka. Guztiz kontrakoa, erreforma sozialen borroka, hau da, lan orduen murrizketa, lan eskubideen onarpena, hezkuntza... borroka sindikal eta politikoaren bitartez be-

harrezkoak dira. Auzia ez da erreformen alde edo aurka egotea, klaseko ikuspuntutik galdera hauei erantzutea baizik: zein da erreformen pater klase arteko borrokan? Nola erabili behar du mugimendua- ren zuzendaritzak erreformen aldeko borroka helburu nagusia den sozialismoa lortzeko?

Zentzu honetan, Rosa Luxemburgek programa minimoa programa maximoarekin uztartzearen beharra defendatzen zuen, hau da, lorpen puntualen aldarrikapenen aldeko borroka langileek boterea hartzera eta sozialismoaren aldeko borrokara bideratzea. Erreformen aldeko borrokak erakusten die ezinezkoa dela horiek bermatzea kapitalismoaren zapalkuntzarekin amaitu ezean.

Bernstein sozialismoaren oinarri materialak ukatzetik hasi zen, sozialismoa ideia moralekin lotzen ahaleginduz. Gizarte kapitalista gai izango balitz barne kontraesanak gainditzeko, ez litzateke beharrezkoa izango, ezta posible ere, horrekin amaitu eta maila altuagoko sistema

sozial batekin ordezkatzea. Horrela sozialismoa ideal soil bihurtzen da eta ez garapen soziala bermatzeko behar batean.

Bernstein, XX. mendearen atarian, ikusmolde aurremarxista eta utopikoetara bueltatzen da, sozialismoa desiragarria eta moralki justu den zerbaitz balitz bezala. Marxismoak, berriz, zientifikoki frogatzen ditu kapitalismoaren krisi amaigabeak eta sozialismoaren behar historikoa giza garapena bermatzeko. *Erreforma edo Iraultza* idazlanak erabateko egunerokotasuna du, gizartearen eraldaketa sozialistaren alde borrokatzen dugun langile eta gazte guztiontzat.



**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281
Twitter: @EHSozialista - @EzkIraultzailea • Facebook: Ezker Iraultzailea - Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

Erabateko arrakasta izan du Bizkaiko metaleko grebak!

**Zabal dezagun mobilizazioa Euskal Herri osora!
Greba orokorra Confebaski eta EAJri aurre egiteko!**



ANDER AZKARATE
ELAko ordezkaria eta Ezker
Iraultzaileko militantea

Maiatzaren 23an, Bizkaiko metaleko 50.000 langile baino gehiagok bost eguneko greba mobilizazio fase bati ekin diote FVEM Metalgintzako Enpresen Bizkaiko Federazioa presionatzeko. Helburua da lan hitzarmena berritzea eta azken 10 urtetan izozturik gelditu ziren soldatak egu-

neratzea da. ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatu nagusiek bat egin dute deialdian. Sektoreko langileek gogotsu hartu dute batasun sindikalean eginiko deialdia eta masiboki parte hartu dute greban.

Bizkaiko industria, euskal industriaren eta estatu espainiarrekoaren antzera, krisi luzea jasaten ari da. Horrek milaka lagun kale gorrian utzi ditu eta, esaterako, Sestaoko Navaleko azken ontziola desagertzea

ekar dezake. Sektorean prekarietatea eta behin-behinekotasuna oso altuak dira, besteak beste, Arcelor Mittal bezalako multinazional handiek kostuak merkatzeke erabiltzen dituzten azpikontratazio-kateen ondorioz. Metaleko greba borroka sektorial huts bat baino zerbait gehiago da, langile klasean duen garrantzi historikoarengatik eta beste sektore prekarizatuari begira erreferentziala bihurtu daitekeelako.

Euskal patronalak eta EAJk metalaren industria estrategikotzat jotzen dute eta ez daude prest ezertan amore emateko, are gutxiago langileak esplotatzeko hainbesteko mesedea egin dien lan erreformak alde batera uzteko. Ez da kasualitatea Gipuzkoako eta Bizkaiko metalaren lan hitzarmenak 10 urtez berritu gabe egotea. Lan hitzarmen sektorial handienak dira langile kopuruari dagokionez, eta bietan, ELA eta LAB dira nagusi.

Negoiazio mahaietan lan baldintzak ganoraz hobetzeko eskatzen direnean, Confebasken blokeoarekin erantzuten du. Egoera hori mobilizazioarekin bakarrik gaindi daiteke. Esate baterako, Bizkaian, greba deialdia mahai gainean egonda ere, FVEMk soldata igoera barregarriak eskaintzen jarraitzen zuen, KPI ozta-ozta, eta inongo proposamenik gabe 2011az geroztik galdutako eros-ahalmena berdintzeko. Nola ez, FVEMk eta orokorrean Confebasken, ez dute entzun ere egin nahi behin-behinekotasuna edo azpikontratazioa murrizteaz edota Rajoyren lan erreforma mugatzeaz ezer. Erreforma horrek aukera paregabea eman die lan baldintzak are gehiago okertzeko, bereziki, langile gazteonak.

EAJ eta patronalarentzat prekarietatea negozioa da

Oso adierazgarria da EAJ isilik egotea FVEMren jarreraren aurrean. Azken finean, euskal enpresari industrial handien ordezkari zuzena da. Euskal eskuina saiatzen da diskurtsoa goxatzen eta kalitatezko enpleguari buruz hitz egiten, batez ere hauteskunde atarian. Horrela langileak eta klase ertaina erakarri nahi ditu bere altzora. Halere, une erabakigarrietan, beti jartzen da lana benetako infernu bihurtzen dutenen alde, egun hauetan ikusi ahal izan dugunez. Hiru egunetan bakarrik, 5 langile erail dituzte Euskal Herrian. Horietarik lau lan istripu traumatikoetan eta bostga-

rrena amiantoak eraginda. Haie-tako bi industria sektorean aritzen ziren lanean.

Beren komunikabideen bitartez, EAJ eta FVEM metaleko grebaren eragina apaltzen saiatu dira, baina haien zoritxarrerako, lehen greba egunak erabateko arrakasta izan du. Langileen %80ak bat egin du deialdiarekin eta bereziki indartsua izan da lan baldintza kaxkarrenak dituzten azpikontratetan. 10.000 lagun batu dituen Bilboko manifestazioak argi utzi du langile klaseak borrokara batzeko nahikoa indar duela, lehen pentsiodunek, emakumeek eta ikasleek erakutsi duten bezala.

Jakin badakigu patronalak apurrrak baino ez dituela eskainiko ondoko egunotan. Akats larria litza-teke, borroka hasita, bloke sindikalean akordio txar bat planteatzea datozen greba egunak eta gatazka

bertan behera utziz. Aitzitik, Ezkerreko Sindikalistok Bizkaiko borroka Euskal Herri osora zabaltzea proposatzen dugu, ekintza batasunaren bidez, greba orokor baterako lehen urrats gisa.

Euskal Herrian zein estatuan osoan, patronalaren ofentsiba orokortua bizi dugu: industria zapuzten ari da, sektore guztietan prekarietatea zabaltzen du bereziki gazteak eta emakumeak kolpatuz, eta ezin ahaztu indarrean jarraitzen duten murrizketak eta austeritate politikak. Beharrezkoa dugu borrokak bateratzea eta mobilizazio plan sendo bat planteatzea. Maiatzaren 23ko arrakastak erakusten du langile klaseak baduela indarra, jarrera eta determinazioa urrats kualitatiboa emateko mobilizazioetan, prekarietatearekin amaitu eta kendu zaizkigun lan eskubideak berreskuratzeko.



Elkartasuna Gasteizko Mercedes Benzeko langileekin!

Kaleratuak berronartu!

ELOY VAL DEL OLMO
Ezker Iraultzailea · Gasteiz

Pasa den otsailaren 19an, Gasteizko Mercedes Benzeko zuzendaritzak kaleratze gutuna igorri zien bertako hiru langileri enpresako politiken kritikak publiko egiteagatik, eta gaineratu zuten azken aldiko errendimendua jaitsi dutela. Karta, ordea, txantilo bat besterik ez da, ez du kaleratzeak justifikatzeko inolako probarik aurkezten eta langile gehiagori bidal diezaiekete, eraso honi erantzun tinko bat eman ezean. Kaleratze bidegabeak merkeagotu zituen lan erreforman babestuta,

Mercedeseko zuzendaritzak kaleratze librea aplikatu du, enpresarentzat koste minimoarekin.

**Aski da! Kaleratzetik ez!
Prekariateterik ez!**

Kaleratze hauek enpresa ekoizpena doitzeko politika egiten ari den garaian gertatu dira. Daimler taldeak 2017. urtea 14.682 milioi euroko irabaziarekin itxi zuen, baina 2018an ez zuen nahi beste irabazirik izan eta langileak gehiago zapaltzeko erabakia hartu du.

Lan prekariatatearen aurkako salaketa kanpaina luze baten ondoren,

1.500 lanpostu mugagabe bilakatu ziren 2016ko abendutik 2018ko uztailera bitartean. Edonola ere, *dieselgate* delakoa aitzakiatzat hartuta, iazko azken hiruhilekoan 25 egunez geldiarazi zuten muntaia. Ondorioak: ekotzen asmoak murriztu ondoren, ez zituzten behin-behineko 800 kontratu berri, ezta plantillan sartzeaz zeuden 300 langilerena ere.

Une honetan, enpresaren ordu poltsak negatiboan daude, beraz, murrizketa gehiago izan ezker, Enpleguaren Behin-behineko Erregulazio Espediente bat edo, areago, Enpleguaren Erregulazio Espediente bat ekar dezakete.

Kaleratze hauek ez dira kasualitate: datorren urtean bukatzen da indarrean dagoen lan hitzarmena eta berria hasiko litzateke. Kaleratze hauek Mercedesko patronalaren mezua dira langileen artean izua zabaltzeko eta lan duin eta finkoaren aldeko borroka batasuna eragozteko.

**Gora klaseko sindikalismo borrokalari eta demokratikoa!
Kaleratu eta zapaltzen gaituztenekin kolaboratzen duen sindikalismoari ez!**

2018ko bukaeran izandako hauteskunde sindikaletan igo egin zen enpresari oposizio handiagoa egiten dieten hautagaitzen babesa. UGT da sindikatu nagusia, baina langile batzordeko zuzendaritza ELAk dauka, CCOO, LAB eta ESKren babesarekin. Mercedeseko zuzendaritzak UGTren zuzendaritzarengan aurkitu izan du babesa bere planak aurrera eramateko, eta izaera borrokalariagoa izan duten gainerako sindikatuak despreziatu ditu.

Langileen interesak eta patronalarenak aurka daude eta, beraz, baztertu egin behar da zuzendaritzarekin kolaboratzeko praktika sindikala, zeinak langileak kolpatzen jarraitzeko eta patronala indartzeko besterik ez baitu balio. Gure buruak eraso hauetatik eta etorriko diren estatik babesteko, langileen zerbitzura dagoen klaseko sindikalismo borrokalari eta demokratikoa behar dugu.

**Borroka da irabazteko
eta ukatu dizkiguten
eskubideak lortzeko bidea**

Alde batetik, enpresak kaleratze hauek hitzarmena negoziatzea tokatzen den urtean egin ditu propos. Baina bestalde, orokorrean ematen ari da automobilgintza sektorea-



ren gainean berregituratze prozesu indartsua. Ziurrenik Mercedes Benzeko patronala horretarako prestatzen ari da, eta ibilgailuen stock bat gehiago ekoitzi du uda aurretik, udazken gatazkatsua aurreikusi duelako.

Mercedes Benzeko langileek Arabako probintziak sortzen duen aberastasunaren %28an ekoizten dute. Euskal Herriko ekonomian pisu handia du. 5.000 lanpostu zuzenez gain, beste 20.000 zeharkako lanpostutan du eragina. Mercedeseko patronalak posizio hori aprobetxatu du laguntza gehiago eta abantaila fiskal handiagoa lortzeko eta bere etekinak handitzeko.

Borrokaaren aurrean, klase agintariaren bozeramaileak saiatuko dira Mercedeseko langileak pribilegiatutzat aurkezten, beren lanpostuen eta eskubideen alde egiteagatik. Baina langile klaseak badauka memoria; ondo asko ezagutzen ditugu maniobra horiek, eta elkartasuna zabalduz eta gauzak nola lortu diren gogoraraziz bakarrik garaituko ditugu horrelako trikimailuak; are ge-

hiago Mercedeseko langileek ondo gogoan dute 76ko martxoko borroka historikoan jokatu zuten paper garrantzitsua.

Mercedes Benzeko langileak kaleratzeen aurkako salaketa kanpainan abiatu dute, eta asanbladak eta SEAren egoitzaren eta lantokiaren aurrean kontzentrazioak antolatu dituzte eta lanuzteen txandak antolatzen ari dira, goiz eta arratsalde, kaleratutako langile baten epaiketara joateko. Mercedes Benzeko langileen borroka langile klase osoaren borroka da, eta Ezker Iraultzaileko kideok eta Ezkerreko Sindikalistok gure elkartasun osoa luzatu nahi diegu.

Azken hilabeteetan ikusi dugu nola irabaz daitekeen: Huerta de Peraltako langileek kaleratuak berronartzea lortu dute Nafarroan eta Productos Tubulareseko langileek ausardiari esker erregulazio espedientera atzera bota zuten. Hori dela eta, beharrezkoa da borroka elkar-tu eta orokortzea, gure lanpostuak eta langile klasearentzat lan baldintza duinak defendatzeko.

**Borroken batasunaren alde, patronalaren erasoei tinko erantzuteko!
PSOE eta PPren lan erreformak indargabetu behar dira!**





Zubietako erraustegia gelditu!

Osasuna eta ingurumena enpresen irabaziak baino askoz garrantzitsuagoak dira!

MANU ODRIOSOLA
Ezker Iraultzailea
Gipuzkoa

Gure espeziearen biziraupena benetako arriskuan dago lurrak pairatzen duen krisi ekologiko katastrofiko delako eta. Klima aldaketa aurrean dugun ingurugiro arazorik handienetako bat da eta zuzenean erlazionaturik dago gizakiaren jardunarekin. Gutxi jartzen du hori zalantzan. *Science* aldizkariaren

arabera, urtarotan izan diren aldaketen kausa giza jarduna izan beharrean prozesu naturalena izateko probabilitatea milioi batetik 5ekoa bakarrik da. Arrazoi nagusia atmosferaren kutsadura da, CO₂ kontzentrazio geroz eta handiagoa.

Ingurugiroaren suntsiketaren ardurak oso konkretuak dira: enpresa handiak eta beren zerbitzura dauden gobernuak dira, kosta ahala kosta, irabaziak pilatzeko helburua ororen gainetik ezartzen baitute. Mun-

du mailan CO₂ isurpenen %63a 90 multinazionalen jardunaren ondorio dela kalkulatu da, eta Europan sortzen den kutsaduraren %60 horietako 5ek eragiten dutela. Arrazoiak begi bistakoa da: gutxi batzuen irabazi maximoan oinarritzen da sistema kapitalista, nahiz eta lanbezia masiboa, prekaritatea, murritzaketak, osasungintzaren eta hezkuntzaren pribatizazioa eta ingurugiroa eragiten dituen.

Gure osasunaren eta ingurugiroaren kontura aberasteko plana

Errealitate horren aurrean, mundu osoko gobernu kapitalisten hipokresiak ez du mugarik: klimari buruzko goi-bilerak antolatzen dituzte eta ingurugiroa zaintzeko kongresuak egin eta protokoloak onartu. Baina ez dute deus balio basakeria hori geratzeko. Horixe bera da, EAJ eta PSEk gobernatzen dituzten Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, zein Nafarroako Gobernuak egiten dutena. Diru publikotik 10 mila milioi euro kosta daitezkeen AHTaren obrak Euskal Herria suntsitzen ari dira, eta ez dute balioko garraioko CO₂ isurketak gutxitzeko. Gipuzkoan, Zubietako erraustegia jarri nahi dute martxan. Hori 30 km-ra bizi diren pertsonen osasunaren aurka benetako arriskua izango da eta atmosferara milaka CO₂ tona isuriko ditu. Gainera, 768 milioi euro kostako zaigu, diru publikotik eraikuntza eta hondakinen kudeaketako enpresarien poltsikora joango direnak.

Informe serioak bat datoz eta baieztatzen dute erraustegiekin isurtzen dituzten gas toxikoak, dioxinak, furanoak eta metal astunek pertsonen osasunean kalte oso larriak eragiten dituztela ernalkuntzan, minbizian eta arnas zein zirkulazio aparatuen arazoetan. Erraustegiak behin eta berriz zaborra beharko du ekonomikoki errentagarria izan dadin. Horrek birziklapenari ateak ixtea esan nahi du eta CO₂ isurpenak areagotzea (zabor kiloko CO₂ kiloa sor-

tuko du) eta hogeitaz kaltegarriagoa den nitrogeno oxidoko isurpenak ikaragarri areagotzea.

Zubietako erraustegiak baditu alternatibak osasuna eta ingurugiroa arriskuan jarri gabe, eta gainera merkeagoak direnak, baina EAJk eta PSEk ez dituzte entzun ere egin nahi. Jada mahaiaren gainean daude erraustegiko instalazioak berregokitzeko eta ezarri nahi duten pozoiarekin amaitzeko proiektuak. Horregatik beharrezkoa da borroka honekin aurrera jarraitzea erraustegia gelditu arte.

Erraustegiaren aurkako borroka oso garrantzitsua izan da. Milaka izan gara kalera irten garenak eta horretan jarraitu behar dugu. Planetaren biziraupenaren aldeko mobilizazioa ez da bereizten azken urteetan defendatu ditugun beste aldarrikapen sozialetatik. Mugimendu handi bat altxatu behar dugu, arazoaren erroa joango dena eta gazteak, langileak eta zapaldu guztiak elkartuko dituen, gizartearen benetako eraldaketa lortzeko: multinazional gutxi batzuek ekoizpenean jartzen duten kontrol itogarriarekin amaitzeko, ekonomia arrazionala eta ingurugiroa errespetatuko duen modu batean planifikatzeko, lana, soldata, zerbitzu publikoak eta justizia soziala bermatzeko. Zapalkuntza kapitalistarekin bukatu eta benetan demokratikoa den gizarte sozialista eraikita lortuko dugu gure planeta zoragarria mantentzea eta mehatxatzen gaituen hondamenditik salbatzea. Gizartearen eraldaketa sozialista inoiz baino beharrezkoa da.

Hauxe eskatzen dugu:

- Zubietako erraustegia gelditu! Birziklatze enpresa publikoak, langileen kontrol demokratikopean. Negoziorik ez ekologismoarekin!
- Energia eta erregaiak sortzen dituzten multinazional guztiak nazionalizatzea eta inbertsio plan publiko bat egitea energia industria erabat ekologikoa eta jasangarria izan dadin. Energia pobreziari ez!
- Kalitatezko eta doako garraio publiko eta ekologikoaren alde. Inbertsio masiboa hiriak %100 jasangarriak izan daitezen.
- Automobil, aeronautika eta ontzigintza industriaren nazionalizazioa eta horien eraldaketa ekoizpena bideragarria eta ez-kutsagarria izan dadin.
- Lurraren, abeltzaintzaren eta elikagai prozesamenduen industriaren nazionalizazioa. Ozeanoen ustiatze kapitalistari ez! Elikadura jasangarri, ekologiko eta osasuntsuaren alde, gizarte osoarentzat!
- Bere osotasunean langileen eta gazteen kontrol demokratikopean planifikaturiko ekoizpen jasangarria! Munduaren eraldaketa sozialista eta ekologikoaren alde!



Venezuela^{ko}

eskuhartze inperialistaren aurka

Kolpistak garaitzeko, botere ekonomiko eta politikoa kendu behar zaie enpresariei eta burokratei eta langileen eta herriaren eskuetan jarri!

ELOY VAL DEL OLMO
Ezker Iraultzailea · Gasteiz

Donald Trumpen gobernu inperialistak eta Venezuelan duen Juan Guaidó txotxongilo ultraeskuindarrak Venezuelako herriaren aurkako ofentsiba kolpistarekin jarraitzen dute, Norvegiar Maduroekin elkarriketak hasi arren.

Trumpek hasi duen ofentsiba kolpista Europako Batasunak (EB) babestu du. Asko hitz egiten dute “Venezuelako herriaren sufrimenduz”, baina AEBk eta EBk onarturiko zigorrak dagoeneko herrialdean dagoen krisi ekonomikoak gogor kolpatu dituen milioika gazte eta langile muturreko egoerara eramanez.

Guaido “presidente legítimo” gisa onartzen eta blokeo ekonomikoko neurri kriminalak eta ofentsiba kolpista babesten duten 50 gobernu baino gehiagoren artean, Espainiako eta Portugalgo gobernuak nabarmentzen dira. PSOEko, Portugalgo PSko eta Europako hainbat alderdi sozialdemokratetako buruzagiak inperialismoaren planen konplize dira.

Trumpek Venezuelan dagoen egoera ekonomiko larria aprobeztatu nahi du (inposaturiko zigorrak eta blokeoek izugarri larritu dutena), bere interesentzat funtsezkoa den herrialde baten kontrola berreskuratzeko. Caracasen gobernu txotxongiloa ezarri, Washingtonek kolpe latza emango lioke Txinari eta Errusiari, eta pauso

4. ORRIAN JARRAITZEN DU

Antolatu zaitez

EZKER  **IRAULTZAILEAN**

Euskal Herria Sozialista baten alde borrokatzeko

- 1.100 euroko gutxieneko pentsioa eta lanbide arteko gutxieneko soldata! Lan eta pentsio kontrarreformak indargabetzea.
- Legez etxe kaleratzeak debekatzea. Eskaria asetzeko behar beste etxebizitza publikoz osatutako parkea, alokairu sozialean.
- Hezkuntza eta osasungintza duina, kalitatezkoa eta doakoa. LOMCE eta Heziberri indargabetzea.
- Indarkeria matxistaren, justizia patriarkalaren eta LGTBI komunitatearen kontrako diskriminazioaren aurka.
- Faxismoa eta arrazakeriaren aurka borrokatu behar da mobilizazioarekin eta antolakuntzarekin. Atzeritarren Legea indargabetu eta Atzeritarren Internamen-

du Zentroak itxi behar dira, etorkinei eta beren familiei eskubide politikoak, sozialak eta ekonomikoak bermatuz.

- Errepresio judizial eta polizialik ez. Adierazpen eskubidearen alde. Mozal Legeari ez!
- Bankaren eta ekonomiaren sektore estrategikoen nazionalizazioa, pertsonak erreskatatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Autodeterminazio eskubidearen alde. Euskal Herriko eta Kataluniako errepublika sozialisten alde eta errepublika sozialista federal baten alde, egun Estatu espainiarra osatzen duten herri eta nazioen batasun libre eta borondatezkoan oinarritua, erabaki hori hartuta.